

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Idauze-Mendi

Aurkibidea

Udalerria: Idauze-Mendi

Sarrera



Idauze-Mendi Zuberoako udalerria da, Arbaila eskualdekoa. Udalerri hauek ditu mugakide: Gotaine-Irabarne ipar-ekialdean, Urdiñarbe ipar-mendebaldean, Mendikota ekialdean, Altzürükü hego-mendebaldean eta Ozaze-Zühara hegoaldean. Idauze eta Mendi herriak 1842. urtean batu ziren, udalerri bakarra osatzeko. Uhaitzandi ibaia udalerritik igarotzen da, bertara isurtzen diren Arangorena eta Uhalteberri errekekin batera. Udalerriko ekonomiaren oinarria laborantza den arren, berriki itsas produktuekin lan egiten duen enpresa bat kokatu da bertan.

- **Biztanleak:** 265
- **Euskaldunak:** %57,41

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Philippe Etchegoyhen (1940)



Omize Gaine herriko Azarka etxean sortua, lau urterekin familia Idauzera joan zen bizitzera, Bordaberria etxera. Etxezain egon ziren bietan. Aita Lakarrikoa zuen, Ahaneborda etxekoa; Xoben mutil egon zen zonbait urtez, Apholobordan. Ama, Mailuxa Oxibar, Xobeko Haitxondoakoa zen. Zortzi senidetan gazteena zen Philippe; arrebetako bat bi urtetan zendu zen. Haurrak hazi eta etxetik joan zirelarik, gurasoak Jauregiara joan ziren bizitzera. Philippek Xiberoako gizartea XX. mende hasieran nola zen konstatzen du, klase ezberdintasunak eta etxezainen sistema, besteak beste.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com